

Etxean kontu kantari

Txalo txalo txalotxin

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Haur txikiekin jolasean aritzeko pieza polit bat. Txaloka arituko zarete haiekin batera, erritmoan... Ea haurrak noiz asmatzen duen bi eskuak elkartzen... Joko hau haurrak lau hilabete dituenetik aurrera ibiltzeko aukera eskaintzen dizue: hasieran, helduek astinduko dituzte haurraren eskuak, eta bukaeran belarritik tira egingo zaie... Jolas hau denbora luzean erabil daiteke, haurrak urte bete duen arte, gutxienez.

Txalo-txalo txalotxin
hator etxera Mattin,
taloa xehetu kabarran
Lierniren belarrian.

Txoritxo pintto-pintto

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Kantu hau oso gustukoa dute haur askok. Melodia polita du, erritmo egokia eta esanahi gabeko hitzak esateko aukera.
Autoan edota kalean pozik kantatuko dute hau.

Txoritxo pintto-pinttok,
arbola adarrean,
ederto kantaten dau,
buztana gainean.

Xoxua, birigarrua,
Kamixero, kamixero,
Makarroi goxuak!



Makila kixki

Zubizarreta I. (2010). *Sasi Guztien Gaietik*. Galtzagorri elkarteak.

Hiru anai abiatzen dira fortuna bila, bi zaharrenek ez dute lortuko, baina anaia txikiak zuhurtzi handiz jokatu eta etxera bueltatuko da janaria eta urrez beteta. Bidean, engainuak, makilakadak gaiztoei... Barre egiteko aproposa.

Zuk entzun eta kontatu, erraza da eta dibertigarriagoa izango da zure haurarentzako...